

GERTATUA

Oso estu ta larri arkitzen ziran arrantzale bi batelcho batekin itsaz-zabalian. Goizeko ordubiyak aldia zan.

Itsaz-eraso edo *tormenta* bat, uste gabian, sorturik ¡gizarajoak! ura sartzen zitzaizoten batelaren ertzeraño.

Abiyatu ziran orduban benetan erregutzen, ta batak bestiari ala esan ziyon:

—Aizak, Joše, Gurutze done, Lezo'koari, eskeñi deyogun agurtasun edo *promesa*, larri ontatik gorde gaitzan.

—Bai Mañubel, bene benetan.

Orduan begiyak gora jatorik, esan zuben Mañubel'ek:

—¡Lezo'ko Gurutze done maitia, eskeintzen dizugu zu ikustera juatia!

Andik laizter badator beste olatu bolara, betetzen zayote urez batela, ta ayen larriya ezin chukaturik, boina ta eskuakin alegiñak egin arren. Ala ari dirala diyo Mañubel'ek berriro:

—Aizak, Joše, *promesa* izan dedilla kayeko portaletatik abiyatu, ta oñez, ta gañera itsazoko oñetako edo *bota* aundiyakin juatia.

—Bai ta bai; borondate guziyakin.

Urikaltzeko zoriyan arkitzen dira berriro. ¡Ango antzi larri, estu, ikaragarriyak! ¡Chorrotik bezela irtetzen ziran malko benetakua, ayen begiyetatik! Beren burubak ain gaizki ikusirik, diyo Mañubel'ek irugarren aldiz:

—Joše, Joše, esan baño geyagore egin biar diagu.

—Esan, esan nai dekana.

—Bada, urrikipen geyagokua izan dedin gure agurtasuna, juan biar diagu oñez, bai; oñetako aundiyakin, baitare; ta gañera oñetako edo bota barrenak barbantzuz betiakin.

—Bai, bai, ta bai.

Larritasun ayetan zebiltzala, egualdiyak alaitasun bat izan zun, bi-guntzen asi zan itsas bolara, ta ala berian ikusi zuten ontzi, bapore alako bat urruti šamarrian.

Orduan, arraunen muturrian jarri zuten beren blusetako bat, eta eraso ziyoten ziñuka ta deadarka benetako ojuak egiñik.

Noizbait ere ikusi zituzten bapore edo beste ontzi artakuak, etorri ziran beren gana ta bizirik jaso zituzten.



Lezo'ko Gurutzedonea'ren Eleiza ta Plaza.

¡Gizarajuak!

Alaigarri zerbait eman ziyoten, etzanda ekarri zituzten Donosti'ko kayera, ta etzuten laguntzez laga, beren echietara eraman arte.

.....

Andik zortzi egunera kalera irtetzen asi ziran, ta alkar topo egin zutenian, Mañubel'ek esan ziyon lagunari:

—Joše, ¿larri gindukan itsasuan, e?

—Bai, mutill; ura ukan larriya, baña igaro genikan.

—Ta, Lezo'ra, ¿noiz juan biardiagu?

—Ura juan ukan, igarotako gauza ondo igarotua ziok.

—Tira, tira, berriketa guchi. Esan zak, noiz juan biar degun. Es dek aski, estutasunian asko agindu, ta gero ez ordaindu.

—Beida akiyok bada, Mañubel, orlako larri ba aiz, bigar bertan juango gaituk. ¿Nai dek?


—Bai, Joše, ederki zio. Esan bezela bigar goizeko zazpiyetan etorri kayeko portalera.

—Bai, bai.

—Esan bezela, e? Oñetako aundiyakin kayeko portalian.

.....

Esan bezela, urrengo goizeko zazpiyetan elkartu ziran biyak *majo majo*, beren oñetako aundiyakin kayeko portalian.



Lezo'ko Gurutze donea'ren aldaria.

—Kašo, Joše. ¿Etorri aiz?

—Bai, Mañubel; esan bezela.

—Ziñatu lenbizi, ta abiyatu gaitian bada.

Ala abiyatu ziran biyak, alkarrri begiratuaz, eta bide puška bat igarore bai. Baña, bire erdiya baño lenago Mañubel'ek esan zuben:

—Joše, gelditu gaitian piška bat. ¿Au dek oñetako minbera, beatz tarteko barbantzuak ematen diratena.

—Tira, tira, berriketa guchi, ta aurrera.

—Bañan, piška, piška batian.

—Len alako yayua ta zale itzan, ta orain orren aul, negarti ta bildurti?

Nolabait ere egon aldi chiki bat egin zuten, ta, guazen bada, esanaz, berriro abiyatu ziran.

Andik ordu laurden batera, berriz eseri zan Mañubel alki batian esanaz:

—Bañan, Joŕe, mezerez: piŕka bat egon gaitian.

—Ez nikan uzte orren utza itzanik; jarraitu dezayogun bidia.

Orduan azpitik gora begiratuaz, esan ziyon Mañubel'ek Jose'ri:

—¿I, ez alaiz nekatzen?

—Ni? Ez ta batere; oso gustora niak.

—Bañan..... ¿ik ez alde boten barrenen barbantzurik jarri?

—Bai, bañan nik jarri dizkiat EGOSIYAK.

—I....., ori *tranpa* egitia dek.

—Zer izan biar dik. Guk ez genikan esan, egosiyak edo gordiñak izango ziran barbantzubak.

Eta ala, noizbaitere irichi ziran Lezo'ko Gurutze donea'ren Eleiza'ra.


Bata oso ler egiña. Bestia berriz guri guri, oñak esne talotan balitu bezela.

JOSÉ ARTOLA



GERTATUA

BASERTAR batek urte guziko eche errenta zor zuben.
Egun batian azaldu da bere gana eche jabia, ta arpegi aserre sá-marrekin esan diyo:



Baseri-eche jatorra.

—Zu, Choriya: zer egiten dezu urteko orrenta ordaindu gabe.
¿Zer uste dezu, *debalde* baserriyan bizitzia?

—Jauna, arrazoi aundiya du; ez gaude aztubak, bañan urte charra izan degu: lurrak ez digu lagundu, echian eškaš, eta milla kontu orla, bañan ez gaude ordaintzeko gogorik ez daukagulako.

—Begira: oyek aitzekiyak dira, baserritarkeriyak.


—Baña jauna, dirua..... dirua..... dirua.....

—Iso, berriketa guchirekin; neri zor nazuna oadaintzeko dirurik ez badezu, saldu zazu ukulluan daukazun zezena, ta arren dirua neri emanakin, urte guziko errentak kito dituzu.

—¿Nola, nola?

—Zezena'ren dirua eman, ta dena kito.

—¿Konprome alda esan dubenakin?



—Bai, bai.

—Beraz, ¿zezena'ren dirua bakarrik naikua du?

—Oriše bakarrik aski det.

—¡Abejondayola nagusiya! Bigar bertan eramango det perira, salduko det, eta arren dirua oso osorik eramango diyot.

—Agur bada ta bigar arte.

—Bijua ondo, bijua ondo nagusiya.

*
* *

Urrengo egunian, artu zuben baserritarrak ukulluko zezena, ta baita echean zeukan katu bat ere. Birian makiñabachok begiratu ziyon zezen

ari. Izan ere alakoſia zan bera. Gizon ta emakume berari begira gelditzen ziran ta danak abo batez ziyote: ¡A zer zezena!

Irichi zan peri-plazara, jarri zuben zezena salgai, ta anchen, zegon, katua besuetan zeukala.

Gizaseme, peri zaleak inguratu ziran ta ziyoten:

—Au dek au, ganadua.

Abek errapeak, zer guriya dagon.

Batek galderu ziyon baserritar, zezena'ren jabeari:

—¿Zenbat baliyo du zezen eder onek?

—Bada onek baliyo ditu..... bi pesta.

—¿Bi pesta? ¡Zu zoratu egin zera!

—Ez, ez. Egiya da, ta jator ari naiz. Bañan zezen au erosi nai du-benak, katu au-re erosi biarko du.

—¿Eta katuak, zenbat baliyo du bada?

—Bada, katu onek..... bi milla errial.

—¡Ja! ¡ja! ¡ja! ¡Zu erotu egin zera!

—Ez, ez. Ondo ari naiz: katua, bi milla errial.

—Bañan zezenak berak baliyo baditu bi milla errialak, eta baita beste bi pesta oyek ere.

—Ta erosi nai dubenari, ¿zer ajola diyo bi milla ta bi pestakin zezena ta katua erosita?

—Egia da. Ori orla dala nik erosiko dizkitzut biyak.

¡Abejondaizula! Zuretzat izango dira biyak. Baña iskritura bat egin biar degu, beste bi lagunek primatuta.

—Bai, bai. Nai dezun bezela.

Inguruan zeuden bi gizoni deitu zioten, baso bana ardo eman ere bai, ta primatu arazi azkenik paper bat onla idatziya:

«Zezena erosi degu bi pestan ta katua bi milla errialian.

»Testigutzat primatzen degu: Ni, *Joſe Mari Muſugorri*. = Ni, *Ptillipe Zizarzale*.»

*
* *

Urrengo egunian jua da baserritarra bere eche jabearen gana, ta parrez, parrez agur egiten diyo:

—Egun on, nagusi jauna.

—Ongi etorri, ongi etorri.

—Emen nator bada, esan bezela, nere itza osatzera.



—Ederki, ederki. Tira eñeri zaitia. Ardo churru pat artuko dezu, ongi mereziya daukazu ta, gero itz egingo degu.

Biyak alkarri begiratuaz farrez zeuden alai ta pozkiro, ta baso ardua ustu ondorian ala diyo baserritarrak:

—Izandu naiz periyen ta echeke zezena saldu det.

—Orla, orla; bapo, bapo. Ori da gizon izatia.

—Beorrek esan ziran, zezena'ren diruakin dena osatu ta berdintzen gerala. ¿Ez da ala?

—Bai, bai.

—Bada artu beza, bi pestako au.

—¿Zer? ¿Zer?

—Bai, bai, auñen da zezena'ren dirua.

—Gezurti, zaude išilik. Ezin liteken gauzik ez esan emen.

—Bai jauna, bai. Ikusi beza iskritura, legez prima ta guzti osatua.

—Bañan..... ¿bi pesta zezena?

—Ala da, jauna. Orain esan zagun, katua bi milla errialian saldu detala. Ta nola katua neria zan, diru abek neretzat dira.

Ta keñu jostallu bat egiñaz sartu zituben galtzen patrikeran. Nagu-siyak esan ziyon orduban:

—¿Ez dirazu ziri makala sartu!

—Nik beorren esana egin det, zuzen ta legiak aintzen dun bezela. Noranai juaten bada-re ez du arrasoirik izango.

Orra nola bi pestakin osatu zitun urte guziko errentak.

Probintzi ontan, orlako baserritar *tonto* asko arkitzen dira.

JOSÉ ARTOLA

